

## Nekrologiak - *Necrológicas*

### **Alfonso Irigoien: bilbotar euskalduna**

#### *Andolin Eguzkitza*

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

Garrantzirik gabeko ebakuntza bat egin diotenean joan egin zaigu Alfonso. Inork espero ez zuenean. Eta bere bizitzaren une-rik emakorrenean joan ere: aspalditxo honetan Euskaltzaindian eta Deustuko Unibertsitatean egiten ohi zituen lanez gain, atergabeko ekoizketan zebilenean bere ikerketalortzat zeuzkan toponimia, o- nomastika eta hizkuntzaren historian, alde batera utzi gabe, beti ere erakargarri egin zitzaion herri-literatura.

Bera gomutatu eta irudi bi datozkit burura. Bata, ebakuntza egin eta hiru egunetara, klinikara deitu nionean erantzun zidana-gatik, alegia, ondotoxo zegoela, eta zundagatik apur bat deseroso egonik ere, horiek ere pasa behar zirenez pasatzen ari zela. Izan ere euskaldun jendearengan hain desohikoa ez den bizitzari begi-ratzeko modu lasaia, berak ere beste baten, tentsio politiko handiko une baten esan zidan legez, "lurrak beti egin baitu bira lu-rraren inguru, eta hala segituko du egiten seguru asko".

Bestea, Euskaltzaindiaren behar eta eztabaidetan sarritan ikusitakoa: beti polemiko, beti bere ideiak sutsuki defendatzeko prest, baina beti ere sendo bere oinarri enpiriko eta teorikoe-tan, eta halandaze inoiz kontrako aldean gertatuz gero gainditze-ko oso zailak ziren argudioekin hornituta.

Eta lantzean behin zaila izanik ere, maitagarria zen ororen gainetik gure Alfonso. Izan ere, herioak eroan digun une honetan Bilbo bere sorlekuari eta Euskal Herriari bere burua eskaini zion zientzilari eta artistaren bizitza euskalarien artean berak egin-dako bidea ez zela beti lorez beterikoa argi eta garbi esan behar dugulako, ezpada arantzez eta sarritan destainez hornitua, eta mundu horretan lehenengoetarikoa izateraino heldu bazen, ahalegin pertsonal eta intelektualez egin egin zuela, lan egiteko ahalmen nekaezinaz eta, eritziak eritzi, euskal jendearekiko eta euskal jendearen ondarearekiko maitasunaz.

Jainkoak lagun zaitzala, Alfonso, denboren errematean!